

HITZARMENA

- Xabier Zubizarreta Lasagabaster Jauna, Arrasateko Udaleko Alkate-Lehendakaria den aldetik.
- Jose M. Mujika Arrieta Jauna, Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) Kultur Elkarteko Lehendakaria den aldetik.
- Jesus M. Garmendia Jauna, San Frantzisko Xabier Ikastolako Lehendakaria den aldetik.
- Jose Luis Arroitia Galdos Jauna, San Viator Ikastolako Lehendakaria den aldetik.
- Juan Pedro Iurbe Jauna, Umezaintza Haurreskolako Lehendakaria den aldetik.
- Ignazio Lakuntza Jauna, Eskola Politeknikako Zuzendaria den aldetik.
- Eugenio Zabala Jauna, Donostiako Aurrezki Kutxa Municipalako Eskualdeburua den aldetik.
- Iñaki Azkoaga Bastida Jauna, AZK Taldearen Gerentea den aldetik.
- Susana Egia Albeniz Anderea, Erdu Euskaltegi (AEK) Arduraduna den aldetik.
- Jonse Astigarraga Anderea, Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruko Zuzendaria den aldetik.
- Jon Arregi Jauna Besaide Mendizale-Elkarteko Lehendakaria den aldetik.
- Nati Zugasti Anderea, San Andresko Herri-Ikastetxeko ordezkari gisa.
- Juli Monje Sarabia Anderea, Musakolako Herri-Ikastetxeko Zuzendaria den aldetik.
- Xabier Agirre Jauna, Erguingo Herri-Ikastetxeko Zuzendaria den aldetik.
- Gorka Knor Jauna, Lagun-Aro SAREN ordezkari gisa.
- Jesus M. Garmendia Jauna, Eskoriatzako Irakasle-Eskolako Zuzendaria den aldetik.
- Xabier Otamendia Jauna, Hotz-Bero enpresako Gerentea den aldetik.
- Nekane San Miguel Anderea, Abokatua.
- Angel Azagra Jauna, Arrasateko Institutuko Zuzendaria den aldetik.
- Aitor Orobengoa Jauna, Euskadiko Ezkerrako ordezkari gisa.
- Jualian Balanzategi Jauna, ELA-STVko ordezkari gisa.
- Verónica Garai Anderea, Herri Batasunako ordezkari gisa.
- Felix Ormaetxea Jauna, Hezibide Elkarteko Zuzendaria den aldetik.
- Juan Ramon Garai Jauna, Deba Garaiko CC.OOren ordezkari gisa.
- Xabier Zubizarreta Jauna, Deba Garaiko Udal Elkarteko Lehendakaria den aldetik.
- Angel Larrañaga Jauna, Anboto enpresako ordezkari gisa.
- Xabier Lasaga Jauna, Arrasateko EAJren ordezkari gisa.
- Jabier Irastorza Jauna, Lan Kide Aurrezkiaren Zuzendaria den aldetik.
- Mikel Garai Jauna, Iturbide Egoitza Fundazio Publikoaren Lehendakaria den aldetik.
- Luis M^a Iriondo Jauna, AUKEA Fundazio Publikoaren Lehendakaria den aldetik.
- Nikolas Zabaleta Jauna, Arrasateko Maxl Eroskiren Zuzendaria den aldetik.
- Jose Luis Etxebarria Jauna, Mondragon C.F.ren Lehendakaria den aldetik.
- Itziar Elepe Anderea, Helduen Heziketa Iraunkorreko Zentruko Zuzendaria den aldetik.
- Gurutze Urrutia Anderea, El Ferial Herri-Ikastetxeko ordezkari gisa.
- Jose M^a Urizar Jauna, Eusko Alkartasuneko ordezkari gisa.
- Izaskun ezpeleta Anderea, Lore Gazteak Dantza-Taldeko ordezkari gisa.
- Agustin Aranburu Jauna, Rugby-Taldeko Lehendakaria den aldetik.
- Jesus M^a Alkain Jauna, Gipuzkoako Kutzako Zuzendaria den aldetik.

Hitzartzen dute

- 1.- Aipaturiko entitateen elkarren arteko harremanak, ahoz nahiz idatzizkoak, beti **EUSKARAZ** izango dira.
- 2.- Entitate bakoitzeko ordezkapen-organismoetako kideak euskaraz lan egiteko gaitasuna dutenak izan daitezten ahalegina egingo da, beren harremanetan euskararen erabilpena oztopa ez deza-ten.
- 3.- Entitateko zuzendaritza-organo bakoitzetariko Idazkariak euskaraz lan egiteko gaitasuna beharko du izan, bere eginkizuna euskaraz bete ahal izan dezan.
- 4.- Entitate bakoitzeko zuzendaritza-organoen aktak euskaraz idatziko dira preferenteki.
- 5.- Hitzarmen hau izenpetzen duten entitateekiko arozoei buruzko espedienteak oso-osorik euskaraz izapidetu edo tramitatuko ditu entitate bakoitzak, eta hau, azken ondorioetaraino (auziak, notari-arazoak, erizpen juridikoak, fiskalak, etab.).
- 6.- Entitate sinatzaileak euskara ahalik eta gehien erabiltzen saiatuko dira beren funtzionamenduko esparru guztietan, horretarako beharrezko baliabideak poliki-poliki ezarriz.
- 7.- Bere lanbidean euskaraz egoki moldatzeko beharrezko ezagupen teknikoak bereganatuz joango da entitate bakoitzaren menpeko pertsonala.
- 8.- Konpromisu hauek, hasteko, hiru urtetarako hartzen dira.
- 9.- Denboraldi horretan, elkarturiko entitate bakoitzak behar dituen oinarritzko testu, estatutu, funtzionamendu-arau, kontratu, poliza edo beste dokumentu tekniko batzuk euskaratzearen ondoriozko kostu ekonomikoa Udalak bere gain hartuko du.
- 10.- Hitzarmen honen jarraipenaz eta betetzeaz arduratuko den teknikaria kontratatzearen kostu ekonomikoa Udalak bere gain hartuko du, Eusko Jaurlaritzak eman litzakeen laguntzen kalte-tetan gabe.
- 11.- Hitzarmen hau irekia dago beste edozein entitaterentzat, artikulua hauekin bat datozelarik atxeki nahi badute. Hartarako nahikoa izango zaie adostasun-agiri bat azaltzea.
- 12.- Euskaltzaindia eta Eusko Jaurlaritza Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia hitzarmen honen gainbegirale izango dira.

Klausula gehigarri edo salbagoardiakoa

Kontutan izanik Lan Kide Aurrezkiak, Hitzarmena sinatzen duten gainerako entitateen aldean, harreman komertzial eta instituzional handiagoak dituela Arrasaten, eta hauek, Hitzarmena sinatzeko momentuan, zaildu egiten dutela berai Lan Kide Aurrezkiaren aldetik bere osotasun eta efikazian betetzea, Lan Kide Aurrezki hau konprometitu egiten da hala ere beharrezko baliabide material eta pertsonalak jartzera, bitarteko horiekin eta epe ertainera posible izan dadin Hitzarmena bere termino guztietan betetzea, Arrasateko geografi eremuaren barnean.

Espero dut gaurko Hitzarmen honek Arrasateko bizitzan euskara indartzeko pauso garrantzitsua izatea lortuko duela. Euskarak gaurko Euskal Herriko gizartean bete behar duen funtzio soziala betetzen hasteko, lehendabiziko pausoa izango dela. Ea behingoz gure etxe barnetatik, sukaldeetatik kalera, lantegietara, enpresetara, bulegoetara, irratira ateratzen dugun euskara, baina atera ere, eguneroko gauza guztiak, arruntak eta bereziak, aipatzeko eta gure artean komunikatzeko”.

Xabier Zubizarreta Arrasateko Alkatea

Hitzarmen honek esparru elebakarrak eraikitzeko *bide berri* bat erakusten du. Bide berri honen alderdi berezia hau da: borondatez sinatzen duten erakundeen artekoa dela. Beraiek jartzen dute euren arteko legea.

Hitzarmenaren antolaketa eta ekintza hau Udaleko Euskara Batzordeak eraman du bereziki. Euskara Batzordea, zinegotziak eta beste batzuekin batera, *Arrasate Euskaldun Dezagunen* Dinamizatzaileak osatzen dute”.

Jose Mari Mujika AEDko lehendakaria

Jaun-Andreak, eztarriarekin ez dakit nola nabilen. Zeinen pozik egongo litzetekeen gaur hemen gizon bat Arrasatekoa, gizon jakintsua eta argia, Sebero Altube, gaurko ekintza hau ikusten! Berak bere bizi guztian eraman zuen kezka hau zen: euskararen atzerakada, euskara baztertzea, beti atzeraka zihola eta, zer egin zitekeen euskara indartzeko?, urak beherantza joan beharrean gorantza ibilarazteko? Kezka horrekin ibili zen beti bera eta hortaz asko idatzi zuen. Euskaltzaindian sartu zeneko sarrera hitzaldian, auzi hau erabiltzen du, luze gainera, eta berak ematen duen erregela nagusia hau da: “Hizkuntzak ezpainetan erabiltzeko dira, hitzegiteko dira, edo bestela ez dira ezer”. Beraz, hizkuntza bat biziko bada, erabil dezagun, giza harreman guztietan erabil dezagun”.

Aita Villasante, Euskaltzaina

Momento honetan nahiko nuke gure artean, urrutira noa orain, itxasoz beste aldera noa, nahiko nuke gurekin zuetako askok ezaguna duzuen Mackey soziolinguista kanadiarra gurekin izatea, eta esango dizuet zergatik. Oraintxe lau-bost urte idatzi zidan honako hau eskatuz: ‘Kanadan Arrasateko kooperatibei buruzko halako miresmen eta jakinmina haundia dago. Nere galdera, berriz, oso zehatza da; nola jokatu dute, edo nolakoa da Arrasateko Kooperatibagintzaren baitan hizkuntz politika?’ Hauxe idatzi zidan.

Orain bi urte t’erdi Euskal Herrira etorri zenean, Mundu-Biltzarrerera etorri zenean, Arrasatera etorri nahi zuela eta, bertan pasatu zuen egun bat hemen zer zegoen eta ikusiz eta harrirituta esaten zidan: ‘eta zuek euskaldunok, halako ekimen handikoak izanik, halako gauza harrigarriak hau bezelakoa indarrean jarri izanik, nola ez zineten konturatu eraikuntza horren aurrenengo harriekin batera hizkuntzak ere bertan behar zuela?’ Eta Mckeyk hau nahigabetsua eta kezkatuta esaten zidan.

Esan dudan hau publikatua du berak eta horregatik diotsuet. Poz handiz ikusiko luke gaurko gure Hitzarmena, eta gaurko hemengo konpromisua”

“Arrasatearroi bene-benetan zorionak, eta eskerrak. Jakin lankidetzarako prest gaituzuela, eta hala behar duela. Hizkuntzak batu egin behar gaituela eta ez banatu. Izan ditzakegun diferentzia guztien gaintetik herri bat garela, Euskal Herria, edo Euskal Herrietakoak garela, eta hortan irautea gutako bakoitzari dagokigula”.

M^a Karmen Garmendia, Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusia